


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**BILTZAR ZIENTIFIKOETAN PARTE HARTZEKO  
LAGUNTZEN DEIALDIA  
(2018)**

## **ATARIKOA**

Ikerketa sustatzea eta garatzea dira unibertsitateko jardueraren funtsezko ardatzak, eta ikerketa jardueraren elementu garrantzitsua da ikerketa, garapen eta berrikuntza biltzarretan ikerketa horren komunikazio zientifikoa zabaltzea. Xede honetarako, 150.000 € bideratuko dira Ikerketaren arloko errektoreordetzaren aurrekontuan ezarritako aurrekontu kredituaren arabera. Kopuru hau handitu ahal izango da aurrekonturik izanez gero.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta gobernu kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

### **1. oinarria. KONGREDU ZIENTIFIKOETAN PARTE HARTZEAREN HELBURUA**

1.1. Deialdi honen bidez UPV/EHUko ikertzaileek ikerlanetan lortutako emaitzen komunikazio zientifikoa zabaltzea nahi dira estatuan nahiz nazioartean, ikerketa, garapen eta berrikuntza kongresu ospetsuetan txostenak aurkeztuz, betiere txosten horiek prozesu ireki batez (call for papers) parekoen ebaluazio bidez hautatuta.

1.2. Deialdi honetatik kanpo daude inpaktu txikiko mintegi edo workshop izenekoetan izandako parte hartzeak.

### **2. oinarria. DEIALDI HONETAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK**

Honako hauek dira deialdi honetan aurreikusten diren laguntzak eskatu nahi dituztenek izan beharreko baldintzak:

2.1. Epaia irmoz kondenatuta ez egon, diru laguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.

2.2. Egunean egon, itzuli beharreko subentzioen itzultzeen ordainketan.

2.3. Ebazpen irmo bidez zigortuta ez egon, lege honen edo beste lege batzuen arabera, diru laguntzak ez jasotzera.

### **3. oinarria. KONGRESU ZIENTIFIKOEN EZAUGARRIAK**

Ekitaldi zientifikoetan parte hartzeko laguntzak eskatzeko, baldintza hauek bete behar dira aldi berean:

- a. Ekitaldiek nazioarte edo nazio mailakoa izan behar dute, eta ebaluazio batzordeak baloratu beharko du garrantzi zientifikoa.
- b. Txostenak ebaluazio bidez hautatuko dituen batzorde zientifikoa izango dute.

### **4. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK**

Laguntza hauek eska ditzakete ondorengo lan lotura izan eta baldintza zehatz hauek betetzen dituzten irakasle eta ikertzaileek:

4.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:

- a. UPV/EHUrekin kontratu iraunkorra duena edo unibertsitateko funtzionarioa dena, UPV/EHUUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako pertsonala, zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikuluko modalitatearen arabera kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUri atxikita dauden Ikerbasque programako pertsonala, UPV/EHU-CSIC ikergune mistoei atxikitako doktoreak eta irakasle atxikiak edo aldi baterako lan kontratuak duten irakasle atxiki ohiak, plaza iraunkor baterako kreditatuta badira, lanaldi osoan ari direnak.
- b. Ondorengo taldeetako langile ez iraunkorrak, UPV/EHUUn gutxienez bi urte daramatzatenak. Kanpo daude arduraldi partzialeko irakasle elkartuak.

Ondorio horretarako, besteak beste, hauek hartuko dira langile ez iraunkortzat:

- i. UPV/EHUko deialdietako doktoratu ondoko ikertzaileak, 2017a baino lehenagokoak, eta Eusko Jaurlaritzakoak.

- ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (doktoreak) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUekin lotura duten ikertzaileak.
- iii. "Obra/zerbitzu" edo " proiektu jakin baten bidez" kontratatutako ikertzaile doktoreak. Kontratua deialdi batean lortutako ikerketa proiektu batek finantzatuta egongo da, eta biltzarrean hartuko da parte ikerketa proiektuarekin zerikusirik duelako.

#### 4.2. Eskatzaileen baldintza zehatzak:

- a. Ikerketako jardueraren bat egiten ari dela egiaztatzea. Ondorio horretarako, ondorengo kasuetan ulertuko da ikerketako jardueraren bat egiten ari dela:
  - i. UPV/EHUen egiten ari den ikerketa proiekturen batean edo ikerketan diharduen ikertaldereen batean parte hartzea, finantzatuta edo finantzatu gabe egonik, ikerketa proiektu hori UPV/EHUren berezko deialdietakoa edo beste hauek egindako deialdietakoa izanda: Eusko Jaurlaritzak, I+G+b Plan Nazionala edo Europar Batasuna. Eta UPV/EHU denean proiektuaren finantzazioen onuraduna izanda.

Doktorego aurreko eta doktore ondoko laguntzak ez dira proiektu aktibotzat joko, baldintza hau betetzeari dagokionez. Ramón y Cajal eta Juan de la Cierva programetako diru laguntzak dira salbuespen bakarrak (Inkorporazioaren modalitatea). Horiek berariazko finantzazioa barne hartzen dute proiektu bat garatzeko, kasuan kasuko kontratua finantzatzeaz gainera.
  - ii. Ikerketa proiekturen batean parte hartzea, baldin eta ikerketa proiektua diru laguntza eskaera egiteko data baino bi urte lehenago amaitu bada.
- b. 2018an modalitate honetako laguntzarik jaso ez izana.
- c. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantzatutako Euskal Unibertsitate Sistemako ikertaldereen batekoa ez izatea.

### 5. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

5.1. Laguntzen bidez ordainduko dira biltzar zientifikoetan parte hartzeari lotutako izen emate, bidaia, ostatu eta mantenu gastuak. Diru laguntzaren zenbatekoa kongresua egingo den herriaren arabera zehaztuko da.

5.2. Esleituko diren zenbatekoek balio maximo hauek izango dituzte:

- Estatu espainiarreko herrietan: 800 € eskaerako.
- Europako herrietan: 1.300 € eskaerako.
- Europatik kanpoko herrietan: 1.900 € eskaerako.

5.3. Komunikazio edo txosten bakoitzeko, komunikazioaren edo txostenaren egile ikertzaile batek bakarrik eska dezake laguntza.

5.4. Gehienez, biltzarreko egunak finantzatuko dira, gehi biltzarren aurretiko bat eta biltzarra amaitu ondorengo beste bat, betiere egin beharreko bidaiak hala justifikatzen badu.

5.5. Norberaren ibilgailua erabiliz gero, eta gehienez ere 2.000 km-tara arte (joan-etorria), kilometro kopuruari dagokion tarifa aplikatuko da, 5.6. atalean adierazitakoaren arabera.

5.6. 5.6. Laguntzen gehienezko zenbatekoak gorabehera, aurreko ataletan adierazitakoak, zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira joan-etorria hastean indarrean dagoen UPV/EHUren regulación interna zerbitzuengatik kalte ordainei buruz dioenarekin.

5.7. Laguntza hauek ez dira bateragarriak administrazioak eman dezakeen beste edozein diru laguntzarekin, baldin eta helburu bera badute.

## 6. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

6.1. Eskaera ikertzaileak berak egingo du, bere saileko/institutuko kontseiluak edo atxikita dagoen ikerguneko organo baliokideak oniritzia emanda.

6.2. Eskaeretan agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a. Arauzko inprimakian egindako eskaria, kongresuaren hasierako eguna baino, gutxienez, 45 egun lehenago aurkeztu beharko dena.
- b. Biltzarren izaeraren justifikazioa, eskaerari batzorde zientifikoaren osaera eta txostenak hautatzeko prozedura erantsita.
- c. Txostena aurkeztua izateko onespina. Baldin eta eskatzaileak eskaera aurkeztean aipatutako onespina ez badu, laguntza jasotzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du beranduago, baina bidaia hasi aurretik betiere.
- d. Onartua izan eta biltzarrean aurkeztuko den txostena.
- e. Lizentzia edo Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari lizentzia eskatu izanaren frogagiria. Edonola era, lizentzia bidaia hasi aurretik emango zaio.
- f. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.
- g. Dagokion eskaerarekin batera, eskatzaileak sinatutako zinpeko adierazpen bat aurkeztuko da, 2. oinarrian jasotako egoeretan ez daudela adieraziz.

6.3. Deialdi hau era deszentralizatuan kudeatzen da; hortaz, eskaerak campusetan aurkeztu beharko dira. Hona hemen helbideak:

- Arabako campusean: Arabako Campuseko errektoreordeari zuzenduta, erregistroaren bidez.

Izardui komandantea K. 2. 01005 Gasteiz

- Bizkaiko campusa. Bizkaiko Campuseko errektoreordeari zuzenduta. Eskaera bide telematikoak erabiliz egingo da, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren webgunearen bidez:

<http://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/bidai-poltsak>

- Gipuzkoako campusa: Gipuzkoako Campuseko errektoreordeari zuzenduta. Eskaera bide telematikoak erabiliz egingo da, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren webgunearen bidez:

<http://go.ehu.eus/biltzar-zientifikoetan-partehartzea-es>

6.4. Eskatzaileak agiriak UPV/EHUko bi hizkuntza ofizialetako batean edo ingelesez aurkez ditzake.

Baldin eta euskaraz aurkeztutako agiriak euskaraz ez dakiten ebaluatzaileek ebaluatu beharra dagoela erabakiz gero, Errektoreordetza eskatzailearekin jarriko da harremanetan bi aukera hauek eskaintzeko:

- a. Eskatzaileari denbora gehigarri bat ematea agiriak gaztelaniara edo ingelesera itzultzeko.
- b. Errektoreordetzak enpresa espezializatu bati agintzea agiriak itzultzeko. Kasu horretan ere, eskatzaileak behar adinako denbora izango du itzulitakoa balidatzeko, ebaluatzerantz bidali aurretik.

## 7. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Laguntzak esleitzeko proposamenak campus bakoitzean egingo dira, eta campus bakoitzeko errektoreordeak izendatutako batzordeek egingo dituzte.

7.1. Eskariak honako hauen arabera balioetsiko dira:

- a. Biltzar zientifikoa antolatzen duen elkarte zientifikoaren garrantzia (50 puntu).

- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculuma, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera (50 puntu).

7.2. Finantzazioa jasotzeari begira, eskaera hautagarria izan dadin, eskaerak 70 puntu lortu behar ditu, gutxienez. Honez gain, ponentzia UPV/EHU n egindako ikerlan baten emaitza izango da eta argitalpenean UPV/EHUren erakunde filiazioa eta bere ikusizko nortasun korporatiboa jaso beharko dira, unibertsitateak agindutako baldintzen arabera. Ikerketa egiteko, gizakiak, beren laginak zein datuak erabilia egin bada edo animaliekin edo biosegurtasuna eskatzen duen laborategi batean, kasuan kasuko etika batzordearen aldeko txostena aurkeztu beharko da.

## **8. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA**

8.1. Deialdi hau irekita egongo da dagokion aurrekontu ekitaldian edo kreditu erabilgarria gastatu arte. Gorabehera hori gertatuz gero, argitaratu egingo da guztiek jakin dezaten.

Ezarritako arautegia indarrean egongo da harik eta egungoa ordeztuko duen hurrengo deialdia argitaratu arte.

## **9. oinarria. LAGUNTZAK GESTIONATZEKO ORGANOAK**

Campusetako errektoreordetzek kudeatuko dute deialdi hau.

## **10. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA**

10.1. Deialdiko eskaerak edonoiz aurkez daitezke, hau da, deialdia indarrean egon bitartean, eta deialdiaren indarraldia luzatuko da harik eta 2019an ordeztuko duen deialdi berria argitaratu arte. Horrenbestez, 4.2.b oinarrian agertzen den 2018. urteari buruzko aipamena aldatu eta 2019 jarri beharko da, egungo deialdia 2019an indarrean dagoen bitartean

Hala ere, diru laguntzak campusetako errektoreordetzek eman edo ukatuko dituzte zuzenean, eta, modu horretan, jasotako eskaerei azkar erantzutea lortuko da.

10.2. Jasotako eskaerak 7. oinarrian ezarritako irizpideak erabiliz ebaluatuko dira. Eta behar izanez gero, kanpo ebaluazioak egingo dira kasuan kasuko jakintza arlo bakoitzeko aditu independenteen bidez.

## **11. oinarria. EBAZPENA**

11.1. Campuseko errektoreordetza bakoitzean eraturako batzordeek, ebaluazioa egin ondoren, campusetako errektoreordeei aurkeztuko diete laguntzak esleitzeko proposamena. Deialdia, gehienez ere, bi hilabeteko epean ebatziko da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Aipaturako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaerak ezetsi egin direla ulertuko da.

11.2. Campusetako errektoreordeen ebazpen nominalaren bidez jakinaraziko zaio ikertzaile bakoitzari ukatutako edo onartutako eskaera bakoitzari buruz erabakitakoa, baita kasuan kasuko zenbatekoen berri eman ere. Hala eskatuz gero, ebaluatze eta hautatzeko irizpide bakoitzean lortutako puntuazioaren berri emango zaie eskatzaileei. Nolanahi ere, atalka zein osorik ezetsitako eskariak arrazoituak izango dira.

11.3. Adjudikazioaren gaineko erabakian, emandako laguntza bakoitzari buruz honako hauek aipatuko dira:

- a. Esleipendunaren izen-deiturak.
- b. Zer sailetakoa edo zer institututakoa den.
- c. Jardueraren izenburua.

11.4. Ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsua aurkez dakioke, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoari, 39/2015. Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

11.5. Era berean, erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabakia iragarri eta hurrengo egunetik hasita.

## **12. oinarria. DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK**

12.1. Laguntza ordainketa bakarrean emango da, aurkeztutako gastuen justifikazioan oinarrituta. Ordainduko den zenbatekoa, gehienez, 5.2. oinarrian ezarritako diru laguntzaren zenbatekoa izango da.

12.2. Laguntza eskatu dutenek eginiko ordainketen **jatorrizko frogagiriak** aurkeztu beharko dituzte egindako gastuen justifikazio gisa:

- a. Bidaiei dagokienez, bidai gastuak egiaztatzeko, eskatuko dira jatorrizko billete, ontziratze txartel eta tiketak aurkezteko, ordainketaren faktura edo frogagiriez gainera.
- b. Ez da onartuko ibilgailuak alokatzeko egindako gasturik.
- c. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, egiaztagiri gisa gorde beharko dira autopistetako agiriak edo antzekoak, hau da, joan-etorri horiek justifikatzen dituztenak.
- d. Egindako ostatu eta mantenu gastuen frogagiriak, betiere destinoko herrialde bakoitzean onartutako balio maximoak kontuan izanik.

12.3. Bestalde, biltzarraren antolatzaileak emandako bertaratze ziurtagiriaren kopia erantsiko da, kongresua zenbat egunetakoa izan den jasorik.

## **13. oinarria. JARRAIPENA**

13.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak antolatuko du, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzaren bidez, diruz lagundutako eskaeren jarraipena egiteko prozedura.

13.2. Ez da inola ere fotokopiarik onartuko, jatorrizko dokumentuak galdu direlakoan.

## **14. oinarria. SUBENTZIOA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA**

14.1. Ikertzaileei diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, betiere diru laguntzaren helburua bete dela ulerturik, eta ikertzaileek diru laguntzarik jasotzen badute beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian diru laguntza emateko onartutako ebazpena aldatuko duen ebazpena ekar dezake. Bertan, ondorengoa ezar daiteke:

- a. Jarduerari esleitutako aurrekontua murriztea.
- b. Eskatzaileak jasotako laguntza osoa edo zati bat itzultzea.

14.2. Horretarako, ebazpena emango da, lehenik, dagokion administrazio prozedura eginda, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorrari jarraituta, eta Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposatuta edo aurrez txostena eginda. Ebazpena diru laguntzaren titularrari jakinaraziko zaio.

14.3. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Laguntzaren titularrak bertaratzeari uko egiten dionean, hots, laguntzaren xedea betetzeari.
- b. Ekintza berberera egiteko beste iturri batetik heldutako diru laguntza pilatzen denean, edo behar adina justifikatu gabe ekintza beraren aldakiak aurkezten zaizkienean beste erakunde edo zentro publiko nahiz pribatu batzuei diru laguntza jasotzeko, aldeztatik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian ez betetzea.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatu direnean.
- e. Gastu bera aurrekontuko atal organiko bati baino gehiagori adjudikatzen zaionean.

## **15. oinarria. LAGUNTZA ESKURATZEN DUTENEN LEGEZO ERANTZUKIZUNA**

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorreari buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla.

**AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA**

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtoa jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluekin bat etorrira.

**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2018ko otsailaren 2an

José Luis Martín González  
Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrector de Investigación